

URA AURREZTEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

2009ko urriaren 28an behin betiko onartutako testua

0.-HITZAURREA

Ingurumena babesteko markoaren barruan dago ura aurreztea. Munduan dagoen gero eta ur eskari handiagoa biztanle kopuruaren hazkunderari lotuta dago, eta hazkunde horrek baliabideen gehiegizko ustiapena, eta ondorioz, ingurumenari kaltea dakar.

Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorraren 25. artikulua ezartzen du administrazio publikoek beraien eskumeneko esparruetan ura babesteko ekintzak burutuko dituztela, bereziki, uraren kalitatea eta kantitatea areagotzeko urari emango zaion erabilera bermatzeko ekintzak, horretarako ura aurreztea bultzatuz eta ura alferrik galtzea saihestuz. Halaxe, 26. artikulua administrazio publikoei eskumenak ematen dizkie ur-baliabideak kontserbatzea bermatuko duten ingurugiro-irizpideak ezartzeko administrazioek eman beharreko baimenetan.

Ura zentzuz erabiltzea ura aurreztea da. Ura, ondasun urria denez, zentzuz erabili dadin zaintzeko, oinarritzko araudia ezarri beharra dago baliabide hori aurreztu eta egoki erabiltzeko.

Horregatik, ordenantza honek uraren kontsumoa murriztu eta ura xahutzea ekiditeko helburuarekin eraikin eta eraikuntzetan ura aurrezteko tresnak jartzea arautzen du, Eraikuntza Kode Teknikoan ordenantza hau baino maila handiagoko gainontzeko arau aplikagarrietan ezarritakoaren kaltetan gabe.

Ura bereizi egin behar dela ulertu behar da: alde batetik, edateko ura; eta bestetik, ezaugarri horietako ura erabiltzea eskatzen ez duten beste erabilera batzuetarako ura (parke eta lorategiak ureztatzeko, garbitzeko, edo, besteak beste, komunitako ur-tangak betetzeko). Bestalde, ingurumena zaintzea ezin da pertsonen osasunaren kaltetan egin, eta horregatik, inola ere ezin da onartu edateko ur txarrek pertsonen osasunerako arriskurik edo ingurumenerako kalterik izaterik.



Helburu horiekin, araudi hau teknikaren garapenean oinarrituta aplikatu beharko da, une bakoitzean eskura dugun teknologia onena eta ingurumenari kalte gutxien egingo dizkioten materialak erabiliz.

I: HELBURUA, APLIKAZIO-EREMUA, DEFINIZIOAK.

1. artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua da ura aurrezteko sistemen ezarpena eta erabilpena eta eraikinetako eta bestelako eraikuntza eta jardueretan erabiltzeko uraren kalitatearen egokitzapena arautzea, eta zein kasutan izango den derrigorrezkoa zehaztea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Aplikazio eremua honako hauek osatuko dute:

a) Eraikin eta eraikuntza berri guztiak eta baita ur hornidura sistemetan eragina duten birgaitze edota eraberritzeak ere, erabilera edota jarduera aldaketak eta eraikin edo eraikuntza osoan edo zati batean jarritako jarduerak barne (titulartasuna edozein delarik), testuan zehaztuko diren salbuespenekin.

b) Bereziki, ura aurrezteko gailuak jartzea aurreikusi beharko da ondoren aipatzen diren erabileretarako:

- Bizileku/ etxebizitzarakoa.
- Egoitzarakoa, hotelak eta antzerakoetarakoa.
- Hezkuntzarakoa.
- Osasun zerbitzuetarako:
- Aisialdirakoa.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

- Merkataritzarakoa.
- Industriadarakoa.
- Kiroletarakoa.
- Nekazaritzarakoa edo abelazkuntzararakoa
- Ura kontsumitzen duten instalazioak egotea dakarren beste edozein erabilerarako.

c) Bereziki, ura aurrezteko sistemak ezarri behar dira ur kontsumoa duten Udal jabegoko edozein eraikin publikoetan.

3. artikulua.

Ordenantza, bertan jarritakoa benetan betetzea bermatu behar duten pertsona fisiko edota juridikoei zuzenduta dago, eta bereziki ondorengoei:

- * Enpresei eta bestelako ur hornitzaileei.
- * Ur hornidura instalazioak jartzeko baimena duten instalatzaileei (iturginak eta abar).
- * Sustatzaileei eta eraikitzaileei.
- * Teknikariei (arkitektoak, arkitekto teknikoak, ingeniariak, eta abar)
- * Eraikin eta eraikuntza jabeai, titularrei eta maizterrei.
- * Ingurumena hobetu eta zaintzeko natur baliabideak zentzuz erabiltzeko ardura duten herritar guztiei.

4. artikulua.

Ordenantza honetan erabiliko diren kontzeptuen definizioa:

Ura aurrezteko sistemak: Ur kontsumoa modu eraginkorrean aurrezte eta ura beste erabilera edo helburu baterako berrerabiltzea bermatuko duten tresna edo instalazio guztiak.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Euri ura batzeko sistemak: Euri ura batu eta biltzea bermatzen duten tresna edo instalazio guztiak.

Igerilekuetako ur soberakin sistemak: Igerilekuetan berriztatutako ura batu eta biltzea bermatzen duten tresna edo instalazio guztiak.

Difusoreak: Txorrotetan eta dutxetan ura aurrezten duten tresnak ur emarian airea sartuz eta horrela emaria murriztuz.

Ur grisena sistemak: Erabilitako urak, bereziki bainuontzi eta dutxetakoak, batu eta gero komunitateko ur-tangak betetzeko edo edateko ez diren beste erabileretarako egokitzeko helburua duten tresna edo instalazioa guztiak. Erabilitako ur horien artean ez dira sartzen koipeak edo eduki fekalak dituztenak.

II. XEDAPEN OROKORRAK:

5. artikulua. Baldintza zehatzak.

Ordenantza hau indarrean sartu ondoren egingo diren 2. artikuluan aipatutako eraikin, eraikuntza eta erabilera berri guztiak ordenantzan ezarritakoa betetzera derrigor-tuta daude dagokion hirigintza lizentzia lortu ahal izateko, eta gutxienez, ordenantza honetako 14, 15 eta 16. artikuluetan ura aurrezteko aurreikusitako sistemak jaso beharko dituzte proiektuan.

Ordenantza onartu aurretik egindako etxebizitzetan aldaketak, birgaitzeak edo osoko erreformak egiteko obra nagusiko lizentzia beharrezkoa denean, edateko uren instalazioen egokitzapena aurreikusi beharko da proiektuan, gutxienez, ordenantza honetako 14, 15 eta 16. artikuluetan aurreikusitako ura aurrezteko sistemak jasota. Sistema horiek ez jasotzeak obra lizentziarik ez ematea ekarriko du.

Sistema horiek derrigorrezkoak izango dira jarduera berriak jarri eta irekitzeko lizentzia lortzeko edo jardueraren erabilera aldatzeko lizentzia lortzeko.

Ura aurrezteko sistema horiek aurreikusten ez dituzten edo ordenantza honetako gainontzeko xedapenekin bat ez datozen proiektuek ez dute izango obra egiteko derrigorrezkoa den obra lizentziarik horiek proiektuan sartu eta aintzat hartu arte.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Instalazioak egin ondoren funtzionamendu lizentzia eman ahal izateko teknikari gaituren batek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagirian jaso beharko da egindako instalazioak proiektuarekin bat datozela.

6. artikulua.

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik, etxebizitza anitzeko edo bakarreko eraikin berri guztiek, edateko ur instalazioei dagokienez, ondorengo hauek izan beharko dituzte derrigorrez:

- a) Etxebizitza eta lokal bakoitzerako ur kontagailu indibidualak.
- b) Ur bero instalazio zentralizatua izanez gero, instalazioak kontagailu indibiduala izango du etxebizitza edo lokal bakoitzerako.
- c) Ur berogailu indibidualen eta txorroten arteko hodiaren luzera 15 metrokoa edo handiagoa baldin bada, itzulerako hodia izan beharko du.

7. artikulua.

Ur sareari lotuta dauden etxebizitza guztiek urak estolda sare publikotik isuri beharko dituzte Udalak ezarritako arauen arabera.

Lohiak edo koipeak sortzen dituzten jardueretako lokaletan bereizketa egiteko kutxatila jarriko da estolda sarearekin lotura-putzua egin baino lehen, eta garbiketa eta isurketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioak ezarritako araudiaren arabera egingo da. Kutxatila obra proiektuan eta irekiera baimen eskaeran agertu beharko da.

8. artikulua.

Paisaiari edo arkitekturaren harmoniari kalteak egitea galarazteko eta babes planetan edo katalogoetan jasotako eraikin, eraikin multzo, edo paisaiak zaintzeko kasuan kasuko hirigintza arauak ezarriko zaizkie ura aurrezteko sistema guztiei..

Ebazpen hauez gain, eraikinetan ura aurrezteko sistemak jartzeko egindako jarduketara guztiek, bilatu gabeko ageriko inpaktua ekidin ahal izateko, egoki integratzeko eta kaptadore multzoa eta beste ekipo osagarriak ahalik eta ondoen disimulatzeko beharrezko neurriak aurreikusi beharko dituzte. Arrazoi teknikoengatik



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

biltegiak lurperatuta ez baldin badaude, zerbitzu instalaziotzat joko dira eta ageriko eta estetika inpaktua ekiditeko sistemak jaso beharko dituzte.

9. artikulua.

Ordenantza hau aplikatzerakoan, homologatutako teknologiarekin egin beharko da kasu bakoitzean, aldaketa teknologikoei egokituz eta sortzen diren berrikuntza teknikoak jasoz.

Helburu horrekin, momentu bakoitzean aurkeztutako proiektuak ordura arte izandako aldaketa teknologikoetara egokitu beharko dira eta ura aurrezteko lagungarri diren azken berrikuntza teknikoak jasotzen ahalegindu.

10. artikulua. Industriak, industri eraikinak eta nekazaritzako eta abelazkuntzako instalazioak.

1. artikulutik 9. artikuluraino zehaztutako eta aipatutako guztia derrigorrez bete beharrekoa izango da industria eta nekazaritza eta abelazkuntza jardueretako udalerriko eraikinetan.

Ibilgailuak garbitzeko makinek erabilitako ura birziklatzeko gailuak izan beharko dituzte.

1.000 m² baino azalera handiagoko ortu edo laboreak ureztatzea eskatzen duten nekazaritza eta industria jardueretako eraikin eta eraikuntza berrietan eta 20 abere larri buru baino gehiagoko abelazkuntzarako eraikin eta eraikuntza berrietan euri ura jaso beharko da instalazio baten bidez. Instalazio horrek ur hori bildu, eta gero, inolako tratamendu kimikorik behar gabe, landare-osasunerako baldintza onenetan erabiltzea bermatu beharko du. Bereziki, teilatu eta terrazetako urak jasoko dira.

11. artikulua. Parkeak eta lorategiak.

Ureztatuak izan daitezkeen 1.000 m²tik gorako zolatu gabeko guneen mantentze-lanak dituzten izaera publikoko zein pribatuko eraikin eta eraikuntza berrietan euri ura jaso beharko da instalazio baten bidez. Instalazio horrek ur hori biltzea, eta gero, inolako tratamendu kimikorik behar gabe, landare-osasunerako



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

baldintza onenetan erabiltzea bermatu beharko du. Bereziki, teilatu eta terrazetako urak jasoko dira.

Horretarako, garapen planeamenduan edo egiten diren urbanizazio proiektuetan, kasu bakoitzean eraikitzea aurreikusten diren eraikinetatik euri urak biltzeko, gordetzeko, tratatzeko eta banatzeko sistemak aurreikusi beharko dira. Garapen berriko eremuetan eraikitako eraikin berriak behartuta egongo dira euri ur zorrotzenak urbanizazio proiektuetan aurreikusitako euri uren sare publikora lotzera.

Ur horiekin ezin baldin badira bete ureztatzeko edo beste erabilera batzuetarako ur beharrak, lorategietatik bertatik datozen urak ere jaso ahal izango dira.

Instalazioen diseinuak eta ezaugarriek ordenantza honetako 17. artikuluan ezarritakoarekin bat egin beharko dute.

Era berean, araztutako hondakin uren erabilera sustatuko da Udalak erabiltzaileen esku jar ditzakeenean mota horretako urak.

Hiri-garapen berriko eremuetan, eta gunee berdeetako edo parekagarrietako ureztatze sareei edo bide publikoetako ur-harguneei dagokienez, instalazio horiek edateko uraren instalazioetatik independenteak izango dira.

Hodietatik ur birziklatuak edo edateko txarrak joatea ekiditeko, hodiak luzera osoan eta edozein sekziotan gris kolorekoak izango dira edo kolore horretako zorroa izango dute edateko uretatik bereizteko. Ur-hargunetako tapetan "Edateko txarra" esaldia jarri beharko du, eta tapa horiek ere gris kolorekoak izan beharko dira.

Gune berde berriak, publikoak zein pribatuak, diseinatzerakoan ura aurrezteko sistema eraginkorrak jarri beharko dira, adibidez, honelakoak:

- Ureztatze programagailuak.
- Irismen txikiko ihinzttagailuak belar guneeetan.
- Tantakako ureztapena zuhaixka guneeetan eta zuhaitzetan.
- Hezetasun detektagailuak lurrian.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Orokorrean, 2.500 m² -tik gorako azaleretan landaketa berriak diseinatzerakoan helburu hauek betetzera jo beharko da:

- Soropila: azaleraren %50a gehienez ere.
- Gainontzekoa, mantentze-lan gutxiko zuhaixkak eta ur gutxi behar duten zuhaitzak.

Ureztatze mota espezifikoak landaketa mota bakoitzari egokitu beharko dira.

Parke eta lorategi txikietarako, 2.500 m² baino gutxiagokoak, estetika eta diseinua nagusitu ahal izango da, baina, bertako klimarako landaketa egokiak aurreikusi beharko dira.

12. artikulua. Igerilekuak.

Igerilekuek mantentze-lan egokia izan beharko dute urtean zehar, igerilekuko basoko ura aldiro berriztatu beharrik izan gabe. Horregatik, mantentze-lan horiek sustatzeko debekatuta egongo da igerilekuak hustea maiatzaren 31tik urriaren 31ra.

30 m² baino gehiagoko ur lamina duten jabetza publikoko edo pribatuko igerileku berri guztietan, sobera dagoen ura instalazio baten bidez jaso beharko da. Instalazio horrek ur hori bildu, eta gero, inolako tratamendu kimikorik behar gabe, landare-osasunerako baldintza onenetan erabiltzea bermatu beharko du.

Instalazioen diseinuak eta ezaugarriek bat egin beharko dute ordenantza honetako 18. artikuluan ezarritakoarekin.

III.- URA AURREZTEKO SISTEMAK

13. artikulua. Ura aurrezteko sistemak.

Inolako mugarik jartzeko asmorik gabe, ura aurrezteko ondorengo sistemak aipatu behar dira:

- Sarrerako uraren presio-erreguladoreak.
- Txorrotetarako eta dutxetarako difusoreak.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

- Komunetarako ur-tanga bereziak.
- Euri urak aprobetxatzea.
- Igerilekuetako ur soberakina berrerabiltzea.
- Dutxa eta bainuontzietan erabilitako ura berrerabiltzea.

14. artikulua. Presio-erreguladoreak.

Eraikin eta eraikuntzetako ur sarreran presio-erregulatzailer bat jarri beharko da erabiltzailearen instalazio barruko edozein puntutan urte osoan urak gehienez ere 2,5 kg/cm²-ko presioarekin irtetea bermatzeko. Presio-erreguladoreak berori desmuntatzeko eta behar diren mantentze eta zaintze lanak egin ahal izateko beharrezkoak diren eteteko balbulak eta by-passak izan beharko ditu.

15. artikulua. Difusoreak.

Ura aurrezteko mekanismoak edo antzerakoak edota emaria gutxitzekoak jarriko dira, horien bitartez 2,5 kg/cm²-ko presioarekin txorrotetako gehienezko emaria 9 l/min-koa izan dadin eta dutxetakoa 12 l/min-koa.

Mekanismo horietaz gain, erabilera publikoko txorrotek tenporizadoreak edo automatikoki ixteko bestelako edozein sistema izango dute kontsumoa dosifikatzeko, aldi bakoitzeko emaria litro 1era mugatuz.

16. artikulua. Ur-tanga bereziak.

Eraikin eraiki berrietako komunetako ur-tangek gehienez ere 6 litroko bolumena izango dute, eta ura husterakoan hustuketa eteteko aukera edo hustuketa sistema bikoitza izan beharko dute.

Komun publikoetako komunetako ur-tangek errotulu bat izan beharko dute erabiltzaileei adierazteko ura aurrezteko zer sistema mota duten eta nola funtzionatzen duen, hau da, ur hustuketa etetea ahalbidetzen duena den edo hustuketa bikoitzekoa. Ur-tangetako ura ur grisen sistematik jasotakoa baldin bada, dagokion errotuluaren bidez adierazi beharko da.

17. artikulua. Euri urak aprobetxatzea.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Instalazioen diseinua eta neurriak: euri ura batzeko sistemak honako hauek izango ditu:

- Ura bideratzeko kanpoaldeko hodi sare bat.
- Zikinkeriak dekantatzeko eta iragazteko sistema.
- Ur-biltegi bat.

Instalazioaren neurriak instalazioak bete behar dituen behar berezien arabera kalkulatuko dira. Euri ura parkeak eta lorategiak ureztatzeko, barrualdeak eta kanpoaldeak garbitzeko, komunitako ur-tangetarako eta bere ezaugarriengatik egoki izan daitekeen beste edozertarako erabil daiteke. Ureztatzeko erabiltzeko, guno berde m² bakoitzeko HIRU litroko (3 l) edukiera hartu beharko da kontutan.

Bildutako uraren kalitatea bermatzeko dekantazio eta iragazte sistema izan beharko da. Irazki-sarearen tamaina gehienez ere 150 mikrakoa izango da.

18. artikulua. Igerilekuetako ur soberakina.

Igerilekuetako ur soberakina berrerabiltzeko sistemak mekanismo bat izan beharko du ur hori lurpeko kanalizazio bidez ur-biltegiraino eramateko.

Ur-biltegiaren neurriak kalkulatzeko kontuan hartuko dira igerilekuan berriztatzen den ur bolumena, espazio erabilgarria eta ureztatu beharreko azalera edo urari eman behar zaion erabilera.

Ur-biltegiaren ezaugarri teknikoei dagokienez, ur-biltegiak derrigorrez izan beharko du ikatz aktibodun iragazkia edo beste iragazki baliokideren bat.

19. artikulua. Euri urentzako eta igerilekuetako ur soberakinentzako xedapen komunak.

Ur-biltegiak:

Kostuak txikiagotzeko eta espazioa modu eraginkorrean aprobetxatzeko, euri urak eta igerilekuetako ur soberakinak biltegi batean jaso ahal izango dira, betiere, ura iragazki bidez tratatzen dela eta hondakin-kloroa kentzen dela bermatzen baldin badira.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Ur-biltegiak homologatutakoak izan beharko dira eta lurperatuta egon (goialdea gutxienez lur azaletik 50 cm-tara). Gainera, material ez porotsuez eginda egon beharko dira uraren kalitate ona bermatu eta aldiro egin beharreko garbiketa errazteko. Kalitate eta segurtasun baldintzak bermatzen dituen edozein material erabili ahal izango da.

Edozein modutan, ur-hornidura instalazioetarako oinarrizko arauak onartu zituen 1975eko abenduaren 9ko Ministro-Aginduko 5.7 artikuluan “Erreserba ur-biltegiak” ezarritakoa bete beharko dute.

Ur-biltegi guztiek honako elementu hauek izan beharko dituzte:

- Saneamendu sarera irteera librea izango duen gainezka bidea, sarrerako hodiaren diametro bikoitzekoa.
- Aurreikusitako erabileretarako beharrezko presioa eta emaria emango duen ponpatzeko ekipoa, grabitate hutsez erabilera gauzatu ezin denean.
- Ur-biltegiaren babes mekanikoa eta egonkortasuna bermatuko duen fabrikako estaldura.
- Behar beste isolamendu-balbula.
- Barrenetik husteko sistema, aldiro sedimentuak garbitzea ahalbidetuko duena.
- Garbiketa egiteko sarbidea.
- Aireztapen sistema.

Behar beste ur-biltegi jarriko dira. Gomendatzen da bakoitzaren edukiera 15/20 m³ baino handiago ez izatea.

Erabilera aplikagarriak:

Euri ura eta igerilekuetako ur soberakinak, giza kontsumorako izan ezik, parkeak eta lorategiak ureztatzeko, barrualdeak eta kanpoaldeak garbitzeko, eta bere ezaugarriengatik egoki izan daitekeen beste edozertarako erabil daitezke.

Instalazioen diseinuak edateko uren instalazioekin ez nahastea eta azken hauen hornidura ez kutsatzea bermatu behar du. Edateko ur txar hornidura puntuen



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

seinaleztapenari eta ur-biltegiari dagokienez, kartelak edo panelak jarri beharko dira. Horiek, bertan jarri beharreko irudiaz gain (txorrota, eta gainean gurutze gorria) honako errotulu hau ere izan beharko dute: “Edateko txarra”. Errotulua erraz ikusteko moduko lekuetan egon beharko da beti. Gainera, segurtasuna areagotzeko, baliabide edo tresna egokiak beharko dira txorroten mekanismoa ireki eta erabili ahal izateko, horiek gabe ezin izango baitira ireki edo erabili.

20. artikulua. Dutxa eta bainuontzietako urak berrerabiltzea.

Ur grisak berrerabiltzeko sistema izan beharko dute bai hirigintza lizentzia bakarra duten 24 etxebizitza baino gehiagoko eraikin unitate guztiek, bai beste erabilera batzuetarako eraikin edo eraikuntza eraiki berriek baldin eta dutxa eta bainuontzietako urteroko kontsumoa 3.000 m³ baino handiagoa izango dela aurreikusten bada.

Sistema hau dutxa eta bainuontzietako ura komunitateko ur-tangetarako berrerabiltzeko izango da bakarrik. Sistema hori jartzeak ez du 16. artikuluan jarritakoa betetzetik salbuesten.

Debekatuta dago sistema honetara industria-prozesuetako, sukaldetako, bidetako, arropa-garbigailuetako, ontzi-garbigailuetako edo koipeak, olioak, detergenteak, produktu kimiko kutsagarriak eta agente kutsagarri edo hondakin fekal ugari dituzten urak bildu eta horiek erabiltzea.

Ur grisaren sistemen instalazioa:

Hondakin uren zorrotan bereizi egin beharko dira eta zorrotan bakarrik eta espezifikoak izango da dutxa eta bainuontzietarako ur grisak araztegi fisiko, kimiko edo biologiko konpaktu batera eraman eta uraren arazketa bermatu ahal izateko. Ur grisaren hodi guztiak edateko ur txarretarako espezifikoak izango dira eta horren arabera seinalizatuta egon beharko dira.

Araztegiak saneamendu sareari lotutako gainezkabidea eta hustuketa sistema izango ditu eta baita momentu oro komunitateko ur-tangetara ur hornidura bermatuko duen sareko ur sarrera ere. Araztegiako urari koloragarri ez toxikoa eta



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

biodegradagarria botako zaio. Kolore horrek urak behar bezala araztu direla jakiteko balioko du

Ur-tangetara ponpaketa bidez eramango da ura, baina grabitatez banatzea ere onartuko da ur-tangak araztegia baino beherago daudenean.

Instalazioen diseinuak edateko uren instalazioekin ez nahastea eta azken hauen hornidura ez kutsatzea bermatu behar du. Instalazioa edateko ur hornidura saretik independentea izango da eta ibilbide guztian seinaleztatuta egongo da, hasi araztegitik eta komunetako ur-tangen hornidura puntuetaraino. Edateko ur txar hornidura puntuak seinaleztatzeko kartelak edo panelak jarri beharko dira (etxebizitzetan ez, gainontzeko puntuetan bai). Horiek, bertan jarri beharreko irudiaz gain (txorrota, eta gainean gurutze gorria) honako errotulu hau ere izan beharko dute: "Edateko txarra". Errotulua erraz ikusteko moduko lekuetan egon beharko da beti.

Ur grisaren instalazioa kalkulatzeko kontuan izango da etxebizitza bakoitzeko pertsona kopurua, eta edozelan ere, eraikinak edo eraikuntzak duen erabilera. Horren arabera, hiru mota bereiz daitezke:

-Bizilekurako, etxebizitzak:

Erreferentzi baloretzat hartuko da dutxa edota bainuontzietako ur kontsumoa pertsonako eta eguneko 60 eta 100 l artekoa dela. Familia askotako etxebizitzaren kasuan, balore berak izango dira, baina, ur grisaren sistema komuna izango da eraikineko etxebizitza guztietarako.

-Hotelak:

Erreferentzi baloretzat hartuko da dutxa edota bainuontzietako ur kontsumoa pertsonako eta eguneko 90 eta 120 l artekoa dela.

- Kirolguneak:

Erreferentzi baloretzat hartuko da dutxa edota bainuontzietako ur kontsumoa pertsonako eta eguneko gehienez ere 60 l-koa dela.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Eraikin edota eraikuntzetako leku komunetan araztegia jartzeko zenbat leku dagoen kontuan hartu beharko da. Araztegiak sarbide erraza izan beharko du kontrola eta mantentze-lanak errazteko.

Era berean, ura aurrezteko instalazio honen proiektua eraikinaren gainontzeko instalaziokoekin batera egingo da, horrela, eta ageriko inpaktua ekiditeko, hodi guztiak eraikinaren barrualdetik bideratuko dira.

IV: HIRIGINTZA PLANEAMENDUA ETA HIRI-GARAPEN BERRIAK.

21. artikulua. Ur baliabide alternatiboen sustapena hirigintza planeamenduan.

1. Orokorrean, garapen planeamenduko tresnetan ur baliabide alternatiboak erabiltzeko neurriak jasoko dira, eta eraikinetan, bide publikoetan, aparkalekuetan eta kirol zelai eta pistetan euri urak jasotzeko, biltzeko eta tratatzeko sistemak ezarriko dituzte.

2. Etxebizitzaren batek edo etxebizitza komunitate batek ur grisak birziklatzeko edo euri urak aprobetxatzeko sistema bat jarri gura badu, dagokion hirigintza lizentzia eskuratu baino lehen hirigintza eskumenak dituen udal organoaren aldeko txostena izan beharko du.

22. artikulua. Zoladura porotsuak eta euri urak.

1. Urbanizazio jarduera guztietan gainazal iragazkorak erabiliko dira, zoladura edo okupazio iragazgaitzak horiek behar beharrezkoak dituzten gainazaletara mugatuz. Urbanizazio jardueretan honako hauek ere sartzen dira: planeamenduko urbanizazio proiektuak, gunee libre publikoetako urbanizazio obra proiektuak eta lurzatietako gunee libreak tratatuko dituzten eraikuntza proiektuak. Neurri horiek gunee libre guztietan ezarriko dira.

Gainazal iragazkortzat joko dira, besteak beste, legarrezko, hareazko edo zeramika material porotsuzko bezalako zoladura porotsuak. Gainazal iragazkortzat joko dira ere lauza txikiak, harri-zolak edo galtzadarriak juntura material iragazkorrarekin eginda jarri baldin badira.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

2. Lorategi gunetan iragazkortasuna erraztuko da, horretarako lur-estalkiak edo helburu bera duten beste sistema batzuk erabiliko dira. Horren guztiaren helburua da iragazketa erraztea eta ahal den neurrian lurra trinkotzea ekiditea.

3. Aurreko artikuluetako aurreikuspen orokorren kaltetan gabe, honako gutxiengo hauek ezartzen dira:

a) bulebarretan eta erdibitzailuetan: gutxienez % 50eko gainazal iragazkorra.

b) plazetan eta hiriguneko berdegunetan: gutxienez % 35eko gainazal iragazkorra.

Hirigintza proiektuetan urbanizatu beharreko gunen libre sareko zoruak akabera iragazkorren ehunekoa adierazi beharko da.

23. artikulua. Higidura eta uraren kutsadura kontrolatzea eraikuntzak egiten ari diren gunetan eta bide publikoetan egiten diren obretan.

1. Higidura kontrolatzeko plana egin beharko da eraikitze-bidean dauden gunetan, eraikitze horrek 2.500 m² baino handiagoko hiri-garapena dakarrenean. Plan horretan isurketa-uren kudeaketa egokia jaso beharko da materialak kontrolik gabe arrastatzea eta ur baliabideen kutsadura ahalik eta gehien gutxitzeko moduan.

2. Eraikitze-bidean dauden obretako egoera aldatzen baldin bada, plana egoera horri egokitzea exijituko du Udalak.

V: KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK

24. artikulua. Kontrola.

Udal zerbitzu teknikoek kontrolatuko dute ura aurrezteko sistema publiko guztiek ondo funtzionatzen dutela eta ondo instalatuta daudela, kasu bakoitzean aplikagarritzat jotzen diren neurri eta kontrol metodoak erabiliz.

Horretarako, egiten dituzten ikuskapenetan ura benetan aurrezten dela bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak eskatu ahal izango dituzte.

Instalazio batek edo bere funtzionamenduak ordenantza hau betetzen ez duela egiaztatzen baldin bada, udal organo eskudunak bidezko eskaerak egingo ditu, eta



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

beharrezkoa balitz, aldatutako edo hondatutako zatiak ordezkatu dituzten ordenantza beteko dela bermatzeko.

Udal organo eskudunak isunak jarri ahal izango dituzten egindako eskaerak eta hartutako erabakiak beteko direla bermatzeko.

Ordenantza honetako aginduak betetzen direla egiaztatzeko eraikin eta eraikuntzetan ikuskapenak egitea agindu ahal izango du Udal organo eskudunak. Ordenantza hau betearazteko kudeaketa arloak udalerrian jarritako ur grisaren instalazioen errolda izan beharko du. Instalazio bakoitzeko gutxienez honako informazio hau izan beharko du:

- eskema teknikoa.
- instalatzailearen datuak.
- titularraren, jabearen edo arduradunaren datuak.

25. artikulua. Mantentze-lanak.

Ura aurrezteko sistemadun eraikin eta eraikuntzetako titularrak edo arduradunak behartuta daude beharrezko kontserbazio eta mantentze eta konponketa lanak egitera instalazio horien funtzionamendu egokiena eta aurreikusitako emaitzak lortzen direla bermatzeko.

Bereziki, edozein motako urak berrerabiltzeko sistemetan gutxienez ondorengo lanak egin beharko dira:

- Ur-biltegiak garbitzea, gutxienez urtean behin.
- Iragazkiak gutxienez urtean behin garbitzea, eta material iragazlea aldatzea bere bizitza baliagarria amaitutakoan.

Lan horiek mantentze-lanen erregistro liburuan jaso beharko dira.

Udal zerbitzu teknikoek kontrolak eta azterketak egin ahal izango dituzte sistemen mantentze ona bermatzeko eta dagozkion neurriak hartu ahal izateko 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

26. artikulua. Lizentzia eta jarduera etetea.

Alkatetzak edo horretarako eskuordetza emandako organoak obra eta erabilera lizentzia etetea erabaki ahal izango du ordenantza hau betetzen ez den kasuetan.

Obra eta erabilera lizentzia eteteko ahalmena izateko, aurrez espedientea ireki beharko da ezargarria den legedian aurreikusitako moduan izapidetuta.

27. artikulua. Erabiltzaileentzako informazioa.

Eraikiko diren etxebizitza berrien publizitatean eta kalitate memorian, berariaz aipatuko da ura aurrezteko sistemak jarrita daudela eta horrek dakartzan onurak ingurumen, gizarte eta ekonomia aldetik.

Eraikin bat erosi edo alokatzerakoan ura aurrezteari eta ura aurrezteko jarritako sistemak mantentzeari buruzko informazioa eta jarraibideak emango zaizkio idatziz erabiltzaileari.

Sustatzaileak (edo saltzaileak ondorengo salerosketetan) izango du erosleari ura aurrezteko sistemak daudela informatzeko ardura. Era berean, eraikina edo eraikuntza errentan emateko erabiliko bada, jabeak izango du erabiltzaileei informazioa emateko ardura.

Baimendutako instalatzaileek ere ura aurrezteko sistemei buruz, eta instalazioen mantentze-lanei eta funtzionamenduari buruz informatu beharko dute jarraibideak idatziz emanda.

28. artikulua. Salbuespenak.

Edozein modutan, ur grisen sistemak instalatzetik salbuetsita daude honako hauek: ospitaleak, osasun zentroak, haurtzaindegia, zaharren egoitzak eta gainontzeko zentroak zentroaren ezaugarriengatik sortutako ur grisek esku-hartze espezifikodun tratamendua behar duten agenteak izan ditzaketenean.

VI: ARAU HAUSTEAK, ZIGORRAK ETA ZIGOR PROZEDURA

29. artikulua. Arau-haustek.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

Arau-hauste oso larritzat joko dira honako hauek:

- Ura aurrezteko sistemarik ez jartzea ordenantza hau aplikatuz derrigorrezkoak direnean edota ura aurrezteko sistemak egonda horiek ez erabiltzea.
- Edateko uraren eta edateko ur txarraren arteko kontaktua egoteko aukera ematea.
- Urak edateko txarrak direla adierazteko seinaleztapenik ez egotea eta dagoena behar bestekoa ez izatea ordenantza honetan jarritakoaren arabera.

Arau-hauste larritzat joko dira honako hauek:

- Eraikinaren ezaugarriak eta ura aurrezteko sistema bakoitzerako ezarritako ezaugarriak kontuan izanik, ura aurrezteko dagozkion sistemen instalazioak amaitu gabe edo behar beste egin gabe egotea.
- Mantentze-lanik ezak instalazioen eraginkortasuna gutxitzea edo galtzea dakarrenean.
- Dagokionak, protokoloari jarraituz, ura aurrezteko jarritako sistemei buruz eman beharreko informaziorik ez ematea.
- Ordenantza beteko dela bermatzeko egindako eskaerak eta betearazteko emandako aginduak ez betetzea.

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

- Ikuskapenak egiteko gaitutako arduradunei instalazioetara sartzea galaraztea, eta eskatutako informaziorik ez ematea. Arau-haustea errepikatzea falta larritzat joko da.
- Ordenantza honetako beste edozein arau-hauste, ez baldin badago jasota arau-hauste larritzat edo oso larritzat.



30. artikulua. Zigorrak.

Arau-haustetik sortutako erabilerak galarazteko udal jarduerak gorabehera, ordenantza honetako arauetan ezarritakoaren arabera, honako zigor hauek jarriko dira arauak hausteagatik:

Arau-hauste arinak, 600 euro arteko isuna.

Arau-hauste larriak, 2.000 euro arteko isuna.

Arau-hauste oso larriak, 6.000 euro arteko isuna.

31. artikulua. Zigor prozedura.

Isunak jartzerakoan ondorengo gorabeherak izango dira kontuan kopurua mailakatzeko:

a. Lege-haustea behin baino gehiagotan egitea. Lege-haustea errepikatutzat joko da espediente zigortzailea hasi aurreko bost urteetan ordenantza honetan aurreikusitako lege-hausteren bat egiteagatik zigorra jaso denean eta zigor erabaki hori irmoa denean administrazio bidetik.

b. Lege-haustearen gaitzesgarritasun mailan, bai arintzeko bai larritzeko, eragina izan dezakeen beste edozein.

Gertaera jakin batek arau bat baino gehiagotan jasotako lege-hausteak egitea badakar, kopuru handieneko zigorra ezarriko zaio. Ahalmen zigortzailea daukan organoak izango du espedientearen instrukzioa egin eta espediente eabazteko eskumena.

32. artikulua.

Zigorrak jarri ahal izateko, dagokion espediente ireki eta egin beharko da, legezko edo erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak ezartzea Udalbatzarreko Alkate-Udalburuari dagokio.

33. artikulua.

Isunak borondatezko aldi eskatuko dira edota premiamendu-bidetik, toki araubideko arauak betez.



Ura aurrezteari buruzko udal ordenantzaren behin-betiko onarpen

34. artikulua.

Lege-hauste arinek urte betera preskribatuko dute, larriek bi urtera eta oso larriek bost urtera.

Zigorrek urte betera preskribatuko dute 300 euro baino gutxiagokoak direnean, eta bost urtera 300 euro edo gehiagokoak direnean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honen aurka dauden ordenantza, erregelamendu edo udal bandoak.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau honako hauei aplikatuko zaie: ordenantza indarrean sartzerakoan hirigintza lizentziarik ez zuten eraikin eta eraikuntza berri guztiei eta baita ur hornidura sistemetan eragina duten birgaitze edota eraberritzei ere, erabilera edota jarduera aldaketak eta eraikin edo eraikuntza osoan edo zati batean jarritako jarduerak barne (titulartasuna edozein delarik), testuan zehaztuko diren salbuespenekin, eta ordenantza indarrean sartzerakoan hasiera batean onartu gabe egon eta ordenantza ezarri dakiekeen urbanizazio proiektu guztiei.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik sartuko da indarrean.